

Konta Kontari

Ipuiak euskaraz



Gaua iritsi da. Eskolako ordua. Gau hau ba da berezia, gau beltzako ospakizuna. Badira piratak, badira kalabazak, badira momiak, sorginak eta banpiroak.

- Gabon mamutxoak! - agurtu ditu maisuak.
- Gabon iraskale jauna! - erantzun dute denek batera.
- Gaur txangoa egingo dugu - esan du irakasleak.
- Ongi! - gela bete dute urrak eta txaloak.
- Eta nora goaz? - jakin nahi du Vittorrek.
- Sustoak ematera!
- Hau bai gau dibertigarria - oihukatu dute denek.




Gustora ari dira gure mamutxoak basoan, Elene lehena, Kimu azkena.



Eta bidean direla, txistu bat entzun du Kimuk bere atzean. Eta Kimu ikusmina, buelta eman behar. Bere aurrean gezi bat.

- Zer adierazten du seinale horrek? - galdetu du bere bururako.



Lagunak aldendu dira, baina Kimuk ba du ikusnahia. Beraz, gezia jarraitu du. Gezia ondoren, beste gezia. Eta gezia ondoren, beste gezia? Baina nora doa gure Kimu txikia? Hau bai misterioa.



Eta orduan, pufffff. Hodei urdin bat baso erdian.
Zer izan da hori? – pentsatu du mamutxoak.
Aurreratu eta berriro gertatu da ezustekoa.
Nola segi aurrera?

Eta aurrera segi ahala, Kimu desagertu da.



...



– Baina, non nago? – galdetu du Kimuk.

Norbaiten etxean. Baina alde batera eta bestea begira eta inor ez da bertan.

– Kaixo? Kaixo?

Erantzunik ez. Eta eskailerak badirela, gora egin du gure mamutxo kuxkuxeroak.

Goian badago norbait. Daxi da, sorgin trebea. Edabeak prestatzen dago. Mamua ikusterakoan ez da ikaratu. Kimu agurtu du adeitsu.

– Nor zara zu?

– Ni Kimu naiz – esan dio. Eta zu, nor zara zu?

– Ez dakizu nor naizen? Zer ari zara nire etxean orduan?

– Mmmm... – galdera ona dela pentsatu du mamutxoak. –

Ba ez dakit zer ari naizen hemen.

– Zertara etorri zara ba?

– Ni ez naiz etorri – aitortu du Kimuk – ke urdina izan da.


– Ke urdina? – harritu da Daxi. – A bai! Ke urdina! – gogoratu da Daxi.

– baina ke urdina ez zen zu harrapatzeko, Kili arrapatzeko baizik.

– Nor da Kili? – galdetu du Kimuk.

– Kili, kilimak maite dituen nire munstro laguna da.

Basoan galdu zen igandean, paseoan. Batzuetan gertatzen zaio ilargi beteko egunetan. Eta haren bila joateaz aspertuta nagoenez, geziak jarri nituen etxera itzultzeko ataria erraz aukitzeko.





- Beraz, zuk jarri duzu ke urdina?
- Bai - erantzun dio Daxik bere ideaz arro.
- Orduan zuk bueltatuko nauzu basora!
- Ez ba - erantzun dio arduragabe. - Atariak norabide bakar batean funzionatzen du.



- Eta nola bueltatuko naiz eskolara?

Kimu larritzen hasia da. Negarra ere datorrela, jaitsi ditu sorbaldak. Eta Daxi konturatu da. Ez zazkio malkoak gustatzen sorginari.

- Lasai, lagunduko dizut eta bidean zuk ni lagunduko nauzu. Kili bila joango gara eta seguru bidean zure eskola aukituko dugula. Prestatu zure erratza.

- Nik ez dut erratzik. Baina mamua naiz eta egan egiten dut.
- Are hobeto. Goazen!



KILI

KILI

Basoa zeharkatzen ari dira bizkor. Gaua denez, kandela hartu du Kimuk. Daxi oihuka doa: Kili Kili. Minutu gutxi barru, marru ikaragarria aditu da. Kili da, gosetuta.

- Zer jaten du zure munstro lagunak? - galdetu dio Kimuk kezkati.
- Barazki laranjak.



Kimuk arnas hartu du lasai. Barazki laranjak? Barazki laranjak!!!! pentsau du Kimuk alai.



Kili agertu da eta poztu da bere laguna Daxi ikustean. Kimu aurkeztu da.



- Kaixo, Kimu mamua naiz. Zure lagunaren lagun berria. Ikusi al duzu hemendik kalabaza hegalaria?

Kilik baietz dio buruarekin.

- Eta jan duzu? - galdetu dio Kimuk beldurrez.

Kilik ezetz dio buruarekin eta gero mihia ezpainetik pasa du.



- Goxokiak ekarri dizkizut Kili, azenario karameloak, kuia piruletak eta boniato makiltxoak, zure gogokoenak!



Kili asetuta dagoela, Kimuk bere lagunak aspaldi ikusi dituen jakin nahi du.

Kilik ezetz dio buruarekin. Orduan sudurra lurrera eraman eta usaintzen hasi da. Segituan ba du norabidea.

Bi minutu ondoren lagunak topatu ditu Kilik.



Non zinen Kimu? Urduri jarri gara! - esan dio Zuriñek. Sustoak jasotzen - erantzun dio Kimuk.



Konta Kontari



Ikusi ipuin hau Youtuben

<https://youtu.be/2-G11QVfFP8>

IPUIN GEHIAGO YOUTUBEN

https://www.youtube.com/playlist?list=PLEXgW3DNhVYn_YHKHMXBL14LoC-SAXvUF

IPUIN ETA HEZKUNTZA-BALIABIDE GEHIAGO GURE WEGBUNEAN

<https://www.kontakontari.com>